

URB-252/2007. Arbolea herri meatzaria babesteko eta artatzeko plan bereziaren espedienteko herritarrek parte hartzeko programa aldatzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bi mila eta hamahiruko urriaren hogeita zortzian, besteak beste, honako erabakia hartu du:

LEHENENGOA: Herritarrek parte hartzeko programa aldatzea Arbolea Babesteko eta Artatzeko Plan Berezia formulatzeko, izapidatzeko eta onartzeko, aurreko testuaren lehen puntua kenduz, era honetara geratzeko delarik testua:

“HASIERAN ONARTU DEN AGIRIA JENDAURREAN JARTZEA

Honako mekanismoak ezartzen dira hasieran onartu den agiria jendaurrean jartzeko aldiari herritarrei parte hartzeko eskubidea ahalbideratzeko:

- Hasieran onartu ondoren, Udalak jendaurrean jarriko du, erabakia argitaratuz Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta zabalkunderik gehien duen edo duten egunkarietan, gutxienez 20 eguneko epeaz, azken argitarapena egiten denetik hasita.
- Halaber honako zabalkunde bideak ezartzen dira:
 - Publikoari zabaldutako informazio-bilerak:
 - Talde erredaktatzailearen hitzaldia, hasieran onartu den agiriaren edukia azaltzeko.
 - Agiriaren edukia erakusketa Arbolea auzoan horretarako gaituko den lokal batean, non galderei erantzun baitzaie eta azalpenak emango berariazko saioetan.
 - Arboledako etxebizitzetara bidaliko den eta herritar orori banatuko zaien informazio-foiletoa.
 - Planoen erakusketa Udaletxeko bigarren solairuan. Horrez gain, Hirigintza Saileko langileek behar diren azalpen guztiak emango dituzte eta hasieran onartu den agiriaren ale bat egongo da eskuragarri.
 - Udalaren web orria (www.trapagaran.net)
 - Hasieran onartutako agiriaren azalpen labur bat.
 - Agiri osorako eta planoetarako atzipena
 - Tokiko kronikak: Informazioa bidaltzea komunikabideetara”

BIGARRENA: Arboleda Babesteko eta Artatzeko Plan Berezia formulatu, izapidatu eta onartzeko Herritarrek Parte Hartzeko Programaren onarpenaren eta eduki osoaren iragarkia argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Valle de Trápaga-Trapagarango udaletxeko iragarki oholean, Bizkaiko Lurralde Historikoan zabalkunderik gehien duen egunkarietako batean eta udalaren web orri ofizialean.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 2013ko urriaren 31n.

ALKATEA

Izptua.: Xabier Cuéllar Cuadra